

Etxeetako leihoak eta balkoiak apaintzeko
"JOAN DEUNA 2020" lehiaketarako OINARRIAK

Hartzaileak: Sondikako udalean erroldatuta dagozan herrikideak

Izena emoteko: Izena emoteko fitxa bete (.pdf formatuan) <https://www.sondikagara.eus/> helbidean eta, bete ondoren, ktechnikari@sondika.org helbide elektronikora bialdu. Epea: 2020ko ekainaren 8tik 15era.

Apainketa zelan egin:

- Leihoak eta balkoiak apaindu ahal izango dira Joan Deuna jaietan ohikoak diren zapi, lore eta apaingarriakaz
- Parte-hartzailea identifikatzeko, leihoaren edo balkoiaren ageriko tokian, DinA4 tamainako orri bat jarriko da (folio-tamaina), inskripzioa egitean emongo jakon zenbakiagaz , (letra handi eta nabarmenakaz idatzita). Zenbaki hori e-mailez jakinaraziko da, izena emateko erabili dan helbide berean.
- Epaimahaiaren balorazioa: ekainaren 19tik 24ra, biak barne. Aldi horretan, leihoak eta balkoiak apainduta egon beharko dira eta identifikazio-zenbakia agerian egon beharko da.
- Diseinua, konposizio orokorra, koloreak eta abar baloratuko dira.
- Ez da baloratuko identifikazio-zenbakia bide publikotik ikusteko moduan ez badago.
- Parte-hartzaile guztiak animatu gura doguz Udalak suziri eta trakak -KOLOREZKO Suak (2020ko ekainaren 23an, 23: 00etan)- jaurtitzen dituen bitartean beren leihotik edo balkoi apaindutik linternak piztera.

Sariak: Sondikako saltokietako kontsumo-bonuak izango dira, eta bi kategoria egongo dira:

A) Familia bakarreko etxebizitzak eta etxebizitza atxikiak

1. saria: 250 €
2. saria: 200 €
3. saria: 150 €
4. saria: 100 €
5. saria: 50 €

B) Etxebizitza-blokeak

1. saria: 250 €
2. saria: 200 €
3. saria: 150 €
4. saria: 100 €
5. saria: 50 €

Epaimahaiaren erabakia Udalaren webgunean emongo da ezagutzera (www.sondikagara.eus eta www.sondika.eus), eta telefonoz jarriko gara harremanetan saridunekin, saria emoteko hitzordua jartzeko.

